



LIBURUA

Espektro bat euskal letretan (II)



ANDREZAHARRAREN MANIFESTUA MARI LUZ ESTEBAN

PAMIELA, 2019

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

A itortu nuen *Ezagutzaren mataz* liburuari egindako kritikan: ez naiz ni dramatikoegi jartzekoa. Baina berriro dramatiko jarriko banintz, “espektro bat dabil euskal letren plazan” esanez hasiko nuke baita iruzkin hau ere –oraingoan, Mari Luz Estebanen *Andrezaharraren manifestua*-ri buruz hitz egiteko–.

“Bere buruaz beste... bat egitea” praktika literario bilakatzen duena da euskal letretan dabilen espektroa –esanez, jarraian argituko nuke misterioa, orduko hartan bezalaxe–. Gainera, gaurkoan, Anariaren *Ametsen eraiste neurtua* kantari lapurtuko nioke adierazpidea –zuga, irakurle, dramatismoaren efektua area-gotzeko, noski–. Alta, ez dago dramatiko jartzeko beharrik eta agian adibide

xinple batzuk aski dira esan nahi dudana adierazteko.

Andrezaharrak zera direla irakurri daiteke liburuan, “*Emakumeari ezetz esa(te)n dioten emakume burujabea[k]*”. Horixe da hain justu, “bere buruaz beste... bat egitea”: *emakumea* hil emakumea sortzeko. Emakume berri bat zapalkuntzei muzin egingo diena; subjektu berri bat eraikiko duena.

Andrezaharra beraz, bere buruaz beste... bat egiten saiatzen den subjektua bada, ez da gisako figura poetiko-politiko isolatua euskal letretan. Antzeko lanketa literarioak irakurri ditzakegu –edo horixe proposatu nahi dut behintzat hemen– Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia*-n, Uxue Alberdiren *Jenisjoplin*-en, Danele Sarriugarteren *Azala*

erre-n, Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat*-en, eta baita, erarik mingarriean, Kattalin Minerren *Moio*-n ere.

Agian merezi du pentsatzea ari dela zerbait gertatzen euskal letren plazan eta zerbait horren baitan, *Andrezaharraren manifestua*-k kokagune bereizitiko hitz egiten duela. Izan ere, adineko emakumeari egiten dio lekua, iraungitze programatuaren data gainditu duenari, ero gisa erotismo bizi denari, edertasunaren kanona zalantzan jartzen duenari, erromantikotasunak balio ez dionari, ikusezintasuna eta pobrezia bizi duenari. Eta bazterketa guztien ifrentzuan askatasunari, subertsioari, desobedientziari egin nahi dio bidea *emakumea* ez den emakumeak; oraindik etortzeko dagoenak. ●